
ZALDIBIKO
FESTAK
2023
URRIAK 5, 6, 7, 8 eta 14
ZALDIBIAKO
UDALA
www.zaldibia.eus

# Agurra

*Kaixo herritar,*

*Ate joka datozkigu Zaldibiko festak udazkenean sartzearekin batera. Datozen egunetan izango da zer ikusi, zer ospatu, zer dantzatu eta zer egin gure Gaztelupeko txoko honetan.*

*Aurten ere mimo bereziz antolatu dira festak. Herriko eragile eta herritarren bultzada nekaezina lagun osatu da esku artean duzun egitaraua. ESKERRIK ASKO benetan herriko festen antolakuntzan eta lanetan aritu eta ariko zareten guztioi. Urtero errepikatzen dugun bezala, zuek gabe ezinezkoa litzatekeelako. FESTAK HERRITIK ETA HERRIARENTZAT.*

*Izan ere, AUZOLAN HANDI BAT dira herriko festak, elkarlanean eginak, denentzako tokia izango duten ekintzekin eta gure balioen ispilu. Esku guztiak izango dira ongi-etorriak eta beharrezkoak hurrengo egunetan, lana eta gozamena uztartuz. Pisua elkarrekin ez delako pisu.*

*Eta guztion ahalegin eta arduraz, ASKATASUNA, ERRESPETUA eta GIRO ONA izan daitezela festen oinarri, bai herritarren artean, bai gure artera etorriko direnekin eta baita inguruarekiko ere.*

*GOZATU, EGIN IRRI, EGIN DANTZA, EGIN KANTU, IZAN ASKE ETA ASKE SENTIARAZI ALDAMENEKOA. Berriz ere familia eta lagunartean elkartzeko aukera ematen duten jai hauetan, gogoan izan ditzagun gure artetik joan direnak eta eraman zituztenak. FESTETAN ERE FALTA DIRENAK GOGOAN!*

*Ondo pasa festak zaldibitar!*

*Zaldibian, 2023ko irailean*

---

Lotura honetan egitaraua digitalki eta elebitan:
Aquí el programa de fiestas en castellano:

OHARRA:
Etxe eta auzoak alaitzeko Ikurrinak eskura dituzue udaletxean eta kultur etxean euro baten truke. (Ikurrina bat etxeko)

etxera

Argazkiak: zaldibia.org
Azalaren diseinua: Alaitz Insausti Oiarzabal

Jaiak ondo pasa!

ШУЯСЛЕБЕЙ СЯМА

Qué passis unes bones festes!

اچھی چھٹیاں گزاریں

Aproveitem bem as festas!

Have fun at the town's festivals!

चाडपर्व राम्रोसँग मनाउनुहोस

Viel Spass beim fest!

إستمتعو بالإحتفالات

Amuse-vous bien dans les fêtes!

Disfrutad de las fiestas!

SĂRBĂTORI FERICITE

Pasade boas festas!

BHAIN SPRAOI AS NA SAOIRSE!

FESTAK

# Elkarlana oinarri

## Iaz festen antolakuntza eta diseinuaren inguruko lanketa berezia egin ondoren, aurten ere nabarmena izan da herriko eragile eta herritarren partaidetza eta ekarpena prestaketa bileretan.

Ekainetik hasita 3 lan saio zabal egin dira, guztiak ere partehartzaile kopuru handikoak. Benetan eskertu nahi diegu denei eskainitako denbora, horrela askoz errazagoa baita.

Jai egunak adostu eta egitaraua osatu, festa eremuaren antolaketa egin, erasoen aurreko protokoloa barneratu, txupinazoa nork bota zehaztu... Festa batzordeak egindako lanaren emaitza da esku artean duguna eta datozen egunetan herrian biziko duguna. ESKERRIK ASKO GUZTIOI!





Azken saio bat geratzen da egiteko, festa ondoreneko balorazio saioa hain zuzen ere. Iaz ere egin zen balorazio saioa eta bertan jasotako gaietako bat izan zen festen egutegia zehazteko modua aldatzeko aukera.

Aurten festa batzordean gaia landurik, IRITZI BILKETA bat egitea erabaki da, urriaren amaierako balorazio saioan herritarren iritziak eskuan izanik dagokion erabakia hartu ahal izateko.

Hurrengo orrian duzu iritzi bilketa honi buruzko azalpena eta bertan parte hartzeko modua. Iritzia ematera animatzen zaituztegu, festa batzordearentzat garrantzitsua baita.

## IRITZI BILKETA PROZESUA

**1. INFORMAZIO ALDIA:** festetako programan, herriko informazio kanal ezberdinetan eta festa egunetan herritarrei informazioa eskainiko zaie.

**2. IRITZI BILKETA ALDIA:** urriaren 16tik 20ra, presentzialki eta online iritzia emateko aukera izango da. Herritar bat, iritzi bat.

**3. ERABAKIA HARTZEKO ALDIA:** 2023ko festen balorazio saio irekian landuko den gaietako bat izango da, bildutako iritziak eskuan direla.

**Azalpena:** urtero herriko festa egunak aldakorrak izaten dira, Santa Fe eguna (urriak 6) izaten dugulako erreferentzia nagusi. Herritarren iritzia bildu nahi dugu hori aldatu eta erreferentzia berri bat jartzeko aukerari buruz: hemendik aurrera festak urriko lehen ostegunean hastea, alegia, data edozein dela ere.



FESTAK

Elkarlana oinarri

# IRITZI BILKETA

## GALDERA

## Ados al zaude hemendik aurrera herriko festak urriko lehen ostegunean hastearekin?

☐ **BAI**

☐ **EZ**

☐ **BERDIN ZAIT**

Idatzi hemen beste ekarpenik baduzu:

....................................................................................................

....................................................................................................

....................................................................................................

....................................................................................................

IZEN-ABIZENAK edo Nortasun Agiri zenbakia

....................................................................................................

JAIOTZA-DATA ....................................................................................................

**Iritziak jasotzeko aldia:** urriaren 16tik 20ra (biak barne).

**Aurrez aurre:** udaletxean eta kultur etxean ohiko ordutegietan jarrita egongo diren kutxetan iritzia emanez. Orri hau bera moztuta eraman dezakezu edo bertan egongo dira orriak eskuragarri.

**Online:** www.zaldibia.eus/qr/festaegunak helbidean.

**OHARRA:** Izen-abizenak edo Nortasun Agiri zenbakia (bietako bat) eta jaiotza-data jartzea derrigorrezkoa izango da galdetegia ontzat emateko. Datu hauek soilik Herritar bat, iritzi bat irizpidea bermatzeko erabiliko dira. Ez beste ezertarako, eta ez dira inon publikatuko.

# osteguna Urriak 5

**18:30ean** Festak hasi aurreko **KALEJIRA, HERRIKO GOIZTIRI TXARANGA ETA TXANBOLINTERO TXISTULARI**en doinuekin, **ERRALDOIEK eta DANTZARIek alaiturik, OLALDETIK PLAZARA**.

**19:00etan** **TXUPINAZOA eta IRRINTZIAK udaletxeko balkoitik**. Aurtengoan **Etxekonekok Aniztasun Elkarteko ordezkariek** botako dute festei hasiera emango dien txupinazoa.

**Ondoren** **ERRALDOIAK, BURUHANDIAK** eta herriko **GOIZTIRI TXARANGA**.

**20:00etan** **MONDEJUA dastatzeko aukera** herriko plazan, ardoz eta musikaz lagundurik.

**23:00etatik aurrera** **BADA GIRO** taldearekin dantzaldia.





# Urriak 6 ostirala

**11:00etatik 13:00etara KULKIREKIN JOLASAK haur eta gaztetxoentzat** plazan.

**11:45ean** **TOKA JOKOA** plazan, Beti Gazte Elkarteak antolaturik.

**12:30ean** **MOKADUA JUBILATUENTZAT**, plazan.

**Eguerdian** **MIREN AMURIZA eta UNAI AGIRRE BERTSOLARIEN eta HERRIKO TRIKITILARIEN saioa** herrian zehar.

**13:30ean** **HAURREN BAZKARIA** plazan, Ausa Gaztelu Guraso Elkarteak antolaturik. Haur bakoitzak bere bazkaria ekarri behar du eta arduradun batekin etorri. Postrea eta edaria Guraso Elkarteak jarriko ditu. Ondoren **JOLASAK**.

**17:30ean** **DANTZA EMANALDIA** plazan, **Iztueta Dantza taldearen eskutik**.

**18:30etik aurrera** **PILOTA PARTIDAK Restin**, Gaztelupe Pelota Klubak antolaturik.

- Pelota Eskolako ikasleen arteko txapelketako finalak benjamin, alebin eta infantiletan.
- Herriko pelotari gazteen partida: Lide – Jokin / Aratz – Aetz

**Iluntzean** **GOIERRIKO MARIBATU BATUKADA FEMINISTA** kalean zehar.

**23:30etik aurrera** **AKERBELTZ** taldearen emanaldia.



**BARRAKAK 1€an URRIAREN 6an, EGUN OSOZ.**

**ASKE TALDEAK zapi morea egun osoz janzteko deia egiten du.**



# larunbata Urriak 7

## MOZORRO EGUNA

**12:00etan** **PATXIN ETA POTXIN** pailazoen emanaldia plazan.

**12:00etatik aurrera** **ARROZ PRESTATZE HERRIKOIA** plazan **eta MOZORROTUEN BILKURA. ARGAZKI GUNEA** izango da, eta bazkalondoren zozketa.

**14:30ean** **MUNDUKO ARROZ BAZKARI HERRIKOIA** plazan. Arroza norberak egin dezake plazan edo etxetik eginda ekarri. Su txapak, txotx-a eta ardoa Udalak jarriko ditu. Izen ematea urriaren 4a baino lehen Karreanen edo eskatu.zaldibia.eus-en.

Bazkalostea **ANDONI OLLOKIEGI** bakarlariak girotua.

**19:00etatik aurrera** **XAUKENA ELEKTROTXARANGA**.

**23:00etan** **LOS ZOPILOTES TXIRRIAOS** taldearen kontzertua.

**01:30ean** Herriko **DJ ANIXAKIK**-en saioa.

**Gauean zehar** BOTILZARRA programa: aisialdian alkohola edatearen arriskuak murrizteko esku-hartzea, kalean alkohola edaten ari den jendearengana hurbilduz, Ai Laket taldearen eskutik.

**GUNE MOREA: gune informatiboa, indarkeria sexistari buruzko kontzientziazioa eta iritzi/bizipenak jasotzeko gunea, Emagin Elkartearen laguntzaz.**



# Urriak 8 igandea

## ANIZTASUNA

**11:00etan** **HERRIKO TXANBOLINTERO TXISTULARIEN GOIZ-DEIA** kaleetan zehar, segalarien kalejirarekin.

**11:15etik aurrera** Haur, gaztetxo eta emakumeen **SEGA SAIOA** Almitza Elkartearen eskutik, Mugertza baserriko zelaietan.

**12:30etik 14:30era** **ANIZTASUN FESTA** plazan, Etxekonekok Elkarteak antolaturik. Herrian ditugun kultura ezberdinetako kideek eskainitako dantza, kanta eta janari dastaketa.

**17:30ean** **MOZORRO FESTA ETA HAURREN PLAY-BACK JAIALDIA**, Ausa-Gaztelu Guraso Elkarteak antolatuta.

**Emanaldiaren ondoren** **DISKO FESTA herriko DJ Anixakik**-en eskutik.






## URRIAK 13 ostirala

### XIRIKA KULTUR ELKARTEAK ANTOLATUTA

**17:00etan** **IAGO MAGOA plazan.**

**19:00etan** **ELKARRETARATZEA.**

**19:30ean** **PATATA TORTILA LEHIAKETA BERTSOLARIEK GIROTUTA** (Tikeak Joxepanen salgai 5€an. Prezioan sartzen dira edaria, postrea eta kafea. Su txapak plazan jarriko dira. Tortila egiteko osagai eta materialak norberaren kontu).

**23:00etatik aurrera** **DJa.**

# KUADRILLEN EGUNA

| | |
|---|---|
| **11:00etan** | **PONYAK OLALDEKO PARKEAN**. |
| **13:00etan** | **KUADRILLEN IRTEERA JUN DA JO TXARANGAREKIN** herriko kaleetan zehar. **ARGAZKI GUNEA** plazan, bazkalondoren zozketa. |
| **14:30ean** | **KUADRILLEN EGUNEKO BAZKARIA** plazan. Txartelak herriko tabernetan daude salgai urriaren 10era arte. |
| **Ondoren** | **KUADRILLEN ARTEKO JOKOAK** eta **KALEJIRA** herrian zehar, **Jun da Jo txarangak** giroturik. |
| **20:30etik 21:30era** | **TRIKIDANTZ** taldearen iluntzeko emanaldia. |
| **23:30etik aurrera** | **TRIKIDANTZ** taldearen gaueko emanaldia. |



# FESTETAN, ERASOEN AURREAN ZER?

## 1 NOIZ?

**ERASOAK DIRA.....**

- Iraintzea, umilatzea, kritikatzea, mehatxatzea,...
- Golpatzea.
- Jarraitzea.
- Deserosotasuna edo beldurra sortzen duen edozein jokabide!
- Baimenik gabe ukitzea edo igurztea.
- Ziztatzea, edozein instrumenturekin.
- Exhibizionismoa.
- Nahiaren aurka hurbiltzea.
- Mendekotasun kimikoa eragitea edo eragiten saiatzea.
- Sexua izateko norbait presionatzea.
- Bortxatzea.
- Adostu gabeko harremana erasoa da!

ASKE

ZALDIBIAKO UDALA

## 2 NORA JO?

- Indarkeria matxistarik gabeko informazio gunea:
  urriak 7, 19:00-01:00 plazan.
- Herriko arreta morea 24h:
  606 465 981
- Emakumeen indarkeriaren biktimentzako arreta zerbitzua 24h (Emakunde): 900 840 111
- Larrialdi deiak: 112

## 3 BABESA ESKAINI.

- **"Nola zaude?""Zertan lagun zaitzaket?"**
- Gune seguru batera bideratu: argiztatua, eseri daitekeena, behar duen denboran egon daitekeena.
- Ez utzi bakarrik, saiatu bere konfiantzazko norbait aurkitzen/kontaktatzen, bestela, gelditu berarekin.

## 4 ENTZUN.

- Errespetatu bere denbora: **"Lasai egon, nahi baduzu hemen egongo naiz zurekin."**
- **Ez hartu erabakirik bere baimenik gabe.**
- Zer egin nahi duen galdetu.
- **Ez baloratu, ez epaitu, ez jarri zalantzan bere hitza, ez estutu erabakiak hartzeko.**
- Laguntza eskatu behar bada.

# JAIETAN ERE
# zerO zabor!




## Nola ez,
## festetan ere
## amalurra zaindu eta herria txukun mantendu dezagun.

**Horretarako, guztion aldetik ardura pixka bat besterik ez dugu eskatzen**. Zaldibiako Udalak neurri hauek hartuko ditu herriko eragile eta tabernarien laguntzarekin:

- **Mondeju banaketan baso eta plater berrerabilgarriak banatuko dira.** Mesedez, ez eraman etxera; entregatu horretarako jarriko den gunean.
- **Edalontzi berrerabilgarriak banatuko dira dohainik taberna eta txoznetan.** Nahi baduzu, kristalezkoak balira bezala, tragoa bukatutakoan barran bertan utzi. Bestela, entregatu gabe, baso berarekin joan zaitezke hurrengo tragoa hartzera. Hori bai, ez utzi edozein bazterretan eta ez bota lurrera!
- **Hondakin bilketa:** ez da inolako aldaketarik izango ordutegietan.

**Guztion ahaleginarekin,**
**Zaldibia txukun eta amalurraren lagun!**




# 2022ko jaiak argazkitan




ZALDIBIAKO UDALA








ZALDIBIAKO UDALA


# 2022ko jaiak argazkitan






















# 2022ko jaiak argazkitan





















4
4


ZALDIBIA


4
0


ZALDIBIA
4
5


4
1


ZALDIBIA
3
7




2
7

# 2022ko jaiak argazkitan

















































ZALDIBI-ORDIZI
BIDEGORRIE
33


08
AUPA




25


03




21


05




12


19







# 2022ko jaiak argazkitan









































ETXERA




















ANTOLAKUNTZ
Urriak 11

## 2022ko jaiak argazkitan





































ZALDIBIAKO UDALA






EUSKARALDIA
ZALDIBIN



**EKOTRADE**
TRANSPORTE Y GESTIÓN DE RESIDUOS

943 20 20 20
info@ekotrade.eus
Inaxio Berasarte Bidea, 20115 Astigarraga, Gipuzkoa
Elbarrena 7, 20247 Zaldibia, Gipuzkoa

**nekine**
paleten logistika
Agroaldea Olaeta 6, Zaldibia

**Malene**
✆ 688 453 591
Santa Fe kalea, 41 · 20247 ZALDIBIA

MERTZERIA
**BEGO**
EMAKUMEZKO
GIZONEZKO
ETA HAUR
JANTZIAK
✆ 611 172 779
Santa Fe Kalea Txindoki, 23
20247 ZALDIBIA

**goiuri**
KOOP. ELK. TXIKIA
Tel.: 609 197 063
goiuri@telefonica.net

**LEUNDA**
GARRAIOAK - TRANSPORTES


✆ 943 88 17 82 / 608 77 06 12
jm@transportesleunda.com
Pol. Elbarrena Pab. 7 · 20247 ZALDIBIA

Mendizabal, C.B.

ITURGINTZA - FONTANERIA
BEROGINTZA - CALEFACCION

✆ 609 614 552
Grupo Txindoki, 23 - 4º izda. · ZALDIBIA







Santa Fe 18
✆ 943 88 18 70

Aluminox

Precisión mecanosoldada en
**aluminio** e **inoxidable**

Elbarrena Auzoa · Edificio, 72 · Nº 8
Tel.: 943 88 76 08 · Fax: 943 88 56 62
20247 ZALDIBIA (Gipuzkoa)
admin@aluminox.es · **www.aluminox.es**

Gaztelu

Iturgintza - Fontanería
Berogailu - Calefacción

**Erakusketa / Exposición**
Esteban Lasa 7 - Beasain
✆ 943 88 80 29 · faxa: 943 161 464

**gaztelu.koop@gmail.com**
**www.gazteluiturgintza.eus**



**ITXARO**
ILEAPAINDEGIA

Santa Fe, 4 bajua
Zaldibia

✆ 696 756 062

ARRESE

Jatetxea

Bazkari eta Afariak

Santa Fe Jai zoriontsuak

✆ 943 45 95 36 ZALDIBIA







Txindoki

Txindoki Sukaldeak

943880398

info@txindoki.com

Jose Migel Iturriotz · Beasain

www.txindoki.com




MUGERTZA



info@mugertza.com

www.mugertza.com

GOENAGA S.A.

**ALTZAIRU HERDOILGAITZ SALEROSKETA**

✆ 943 880 663

ELBARREN AUZOA Z/G

20247 **ZALDIBIA**




Muñagorri Enea

20115 **ASTIGARRAGA** (Gipuzkoa)

✆ 943 555 647 · Mugikorra: 679 123 892

EROSLE

Zuen denda

**Santa Fe, 25 behea**

**✆ 943 88 00 46**

**ZALDIBIA (GIPUZKOA)**




Santa Fe 27

✆ 943 88 28 68

**ANBU**

*Elektrizitatea*

✆ 670 240 745

**MARIUS**

auto - Compra Venta

Mecánica Rápida

603 12 48 47

Elbarrena Auzoa 15, Zaldibia.

Mariusautodrozd@gmail.com

**txaro**

**OGIA · LOTERIAK**
**GARBIGAIDENDA**
**OPARIAK · ELIKAGAIAK**
**ESKOLAKO MATERIALA**

✆ 943 16 08 76
**AZTIA-BERRI, 1 · 20247 ZALDIBIA**

**Jaiak**

**MOZORRO DENDA · DISFRACES**

Elbarrena industrialdea, 72-1
20247 ZALDIBIA (Gipuzkoa)
✆ 943 88 82 32
**www.jaiakdenda.com**

Nekazal Turismoa
Jatetxea

**LAZKAO ETXE**



✆ 943 88 00 44 / 615 74 59 24
ZALDIBIA

**Hotel Zelaa**

Pol. Elbarrena 32
20247 Zaldibia

Tel.: 943 16 16 66
Fax: 943 88 45 27
info@hotelzelaa.com

Zelaa hotel

EGUZKI ENERGIA PLAKAK

**Zure eguzki energia instalatzailearekin, izan burujabe**

Aurreztu. Ecofriendly. Autokontsumoa.

**TAPIA energia**

**Energia berdea zure esku!**
T 943 889 594
**www.tapiaenergia.com**

**iurrelan**

Pol. Elbarrena, 25
20247 Zaldibia (Gipuzkoa)
España

Tef: 0034 943 161 596

FESTETAKO
# Aurrekontua 2023

**PLAZAKO MUSIKA**.........................................17.925,00 €
Bada Giro
Akerbeltz
Andoni Ollokiegi
Xaukena elektrotxaranga
Los zopilotes txirriaos
Jun Da Jo txaranga
Trikidantz

**KIROLAK** .........................................................1.700,00 €
Kirol ekitaldiak
Gurutze Gorria

**HAURRENTZAT** ............................................... 2.721,50 €
Kulki
Patxin eta Potxin
Poniak
Play Back-a

**BESTELAKO PROGRAMAZIOA**..................... 4.821,00 €
Bertsolariak
Trikitilariak
Herriko musikariak
Aniztasun festa
Txupinazo festa

**OTORDUAK ETA TABERNAK** ......................... 4.080,00 €
Mondeju banaketa
Kuadrillen eguna
Munduko arroz jana
Jubilatuen hamaiketakoa

**PROGRAMA ETA PUBLIZITATEA** ................. 3.265,00 €
Maketazioa eta Inprenta
Publizitatea
SGAE

**AZPIEGITURA ETA BESTELAKOAK** .......... 28.637,65 €
Oholtza eta karpa
Garbitasuna
Komunen alokairua
Argi-indarra eta elektrizitate lanak
Soinu ekipazioa
Edalontziak
Hesien alokairua
Suak, bonbonak

**DIRU SARRERA AURREKONTUA**................... 2.000,00€
Programako iragarkiak

**GUZTIRA AURREKONTUA** .........................**61.150,15 €**

**Euskaber SL** enpresak
argitaratzen ditu egitarau txikiak


PRESO GAIXOAK KALERA